martxoak 8
EMAKUMEEN
nazioarteko EGUNA

ZAINTZAK PLAZARA!!!

UNITATE DIDAKTIKOA

BIZITZA ERDIGUNEAN

steilas
www.steilas.eus

Sarrera

Unitate didaktiko honetan, ***Zaintzak plazara! Visibilicemos los cuidados!***, zaintzei buruzko esku hartze feminista bat proposatu nahi dugu hezkuntzaren arloan. Parte hartzea, bizipenen bidezko ikasketa, jolasa, sormena, ikus-entzunezkoak eta testuak erabiliko ditugu, eta, horien guztien bidez, galderak luzatuko dizkiegu ikasleei, adibidez, zergatik ezkutatzen ditugun zaintza lanak, zeinek egiten dituen halako lanak gure inguru hurbilean eta, beren iritziz, ea zergatik banatzen ote diren halako lanak generoaren arabera.

Ezagun denez, azken urteotan eztabaida handia ibili da zaintzak eta etxeko lana ikusarazteko premiari buruz. Feminismoaren teorian eta praktikan bolo-bolo ibili da auzi hori XX. mendeko 60ko hamarkadaz geroztik, betiere helburu batzuk betetzeko asmoz: ekonomiaren arloko genero-ezberdintasuna gainditzea, gizonen eta emakumeen arteko erantzukidetasuna sustatzea eta zaintzak balorean jartzea, bizitzari eusteko oinarrizko faktore diren heinean.

Bistan denez, gure bizi ibilbidean, bizirik iraun nahi badugu, zaintzak eman eta jaso beharra daukagu. Pertsona zaurgarriak eta inter-dependenteak gara, horregatik, beste pertsona batzuek eskaintzen diguten denbora eta energia behar ditugu, hala fisikoki nola emozioen mailan. Pertsona horiek, normalean, emakumeak dira, eta, familiakoak badira, dohainik eskaintzen dizkigute beren denbora eta energia. Gai horren harira, hurbilpen kritiko bat egin behar dugu hezkuntza-zentroetan, baita arin egin ere, gizarte berdinzale eta zuzenago bat lortu nahi badugu.

Gure iritziz, hezkuntza-zentroak aparteko tokiak dira halako gaiez hitz egiteko: zer diren zaintza lanak, nortzuk egiten dituzten, non dauden eta zer nolako ezberdintasunek zeharkatzen duten halako lanen banaketa. Gure irakaskuntza-jardunean eta hezkuntza-planetan txertatu nahi dugu orain arte gure testu liburuetan baloratu ez den gai bat, izan ere, zaintza lanak beti agertzen dira estereotipo itxuran: emakumea da etxeko lan nagusien «teknikaria» (hark pasatzen du erratza, hark egiten du ditu harrikoa eta erosketak eta hark bainatzen ditu umeak), eta gizonak, ordea, lan osagarriak egiten ditu (platerrak lehortu, mahaia ipini, landareak ureztatu...).

Espero dugu unitate didaktiko hau baliagarri suertatuko dela, eta ikasleak konturatuko direla zaintza-lanen hil ala biziko garrantziaz eta erantzukidetasunaren garrantziaz.

Abiapuntua

HELBURU OROKORRA

Gizartean borondatez egiten diren zaintzak identifikatu, duten balioa aitortu eta gizarteko pertsona guztien artean banaketa justuago bat sustatu.

HELBURU DIDAKTIKOAK

- Etxeko lanak eta bestelako zaintzak ikustarazi eta duten balioa aitortzea.
- Lanen ardurak era egokian banatzea eta bakoitzak dagozkionak bereganatzea.
- Ikasleen auto-estimua era aktiboan sustatzea, beraien garapen psikosoziala indartuz, erabakiak hartzeko gaitasuna izan dezaten.
- Arazoak konpontzeko taldeko estrategiak garatzea.
- Normaltzat hartzen diren baina emakumeen kontrako erasoa ezkutatzen dituzten ohiturak, sinesmen eta praktiken aurrean espiritu kritikoa garatzea, horien ondorioez jabetzeko eta horien kontra borrokatzeko.
- Zein zaintza eredu nahi dugun hausnartzea, hura aztertuz, jendartearen norbanako guztien ongizatea bilatzeko.
- Gaitasun sozialak lantzea jabetze prozesu bat gauzatzeko (bai/ez esatea, argudiatzea, eskatzea, nahia adieraztea..), horretarako behar diren egoerak eskainiz, askatasunez bizitzen ikasteko.
- Gatazken konponbidea modu positiboan lantzea, horretarako behar diren egoerak eskainiz, enpatia garatzeko.

OINARRIZKO GAITASUNAK

- Gizarterako eta hiritartasunerako gaitasuna.
- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.
- Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna.
- Kultur gaitasuna eta gaitasun artistikoa.
- Informazioa lantzeko gaitasuna eta gaitasun digitala.
- Matematika eta zientzia eta teknologia gaitasuna.

EDUKIAK

- Etxeko lanen eta zaintzen identifikazioa.
- Emakume eta nesken egoeraz jabetzea.
- Eguneroko arazoak eta konponbideak.
- Auto-estimua hobetzeko mekanismoak.
- Gaitasun sozialak.
- Elkarlanerako eta lankidetzarako jarrera eta adostasunetara iristeko prozeduren garapena.
- Informazioa bilatzeko, sailkatzeko, aztertzeko eta adierazteko trebeziaren garapena.

ZAINTZAK PLAZARA !!!

Jarduerak

1 GAIAREN AURKEZPENA ETA MOTIBAZIOA

Materialak: STEILASek aurkeztu duen kartela, abestiak, folioak, boligrafoak, margoak, interneterako sarbidea duen ordenagailua, izarak, arropa eskegitzeko soka eta pintzak, kamera, lapikoak, zaintza lanen role play bat egiteko materialak eta tresnak.
Denbora: 3 saio.
Taldekatze mota: banaka, talde txikiak eta talde handia.

Garapena:

1. saioa

(HH, LH, DBH eta Batxilergoa)

1. Irakasleak STEILASeko kartela toki ikusgarri batean jarriko du.
2. Ikasleak talde txikitan banatuko dira eta hamabost minututan talde bakoitzari kartelaren esanahia zein den eztabaidatzeko eskatuko zaio.
3. Esanahiak komunean jarriko dira eta ondorengo galderen inguruan hitz egingo da adinaren arabera galderak egokituz:
   - Zer irudi ikusten dituzue kartelean? Zer esan nahi dute...?
   - Kartelaren leloak zer adierazten du?
   - Zer aldarrikatzen da M8an?
   - Kartela egun horretarako egokia al da? Zergatik?
   - Egun horretan aldarrikapenak egiten jarraitu behar al da? Zergatik?
   - Zeri erreparatu diozue horrelako ondorioak ateratzeko?

2. saioa

(HH)

1. Irakasleak Edurnezuriren ipuina kontatuko die ikasleei.
2. Gelan Edurnezuriren etxearen parekoa jarriko dute, 7 ohe, 7 eserleku mahai baten bueltan... txoko berri bat sortuz.
3. Ikasle bat edo batzuk, Edurnezurik egin beharko lituzkeen lanak egin beharko dituzte txoko horretan. Hau da, oheak egin, pijamak tolestu, mahaia guzientzat jarri...

3. saioa

(HH)

1. Egun batzuk igarotakoan taldean bilduko dira zenbat lan egiten dituzten hausnartzeko eta beraiek egin ez dituztenak ere aipatuko dituzte. Horrez gain, Edurnezurik egin beharko lituzkeenak (bazkaria prestatu, erratza pasa, komuna garbitu, arropa garbitu...) izendatuko dituzte denen artean.
2. Bakoitzak etxean zer egin dezakeen pentsatu beharko du bere gurasoei laguntzeko eta ondoren etxean egin noski.

2 eta 3. saioa

(LH)

1. Ikasleek egunerokoan beste norbaiten lanari esker zer lortzen duten identifikatzea da helburua. Horretarako lehenengo gelan hausnarketa egingo dute eta etxeko lanak zerrendatuko dituzte: eskolara norekin joaten diren, medikuarenera nork laguntzen dituen...
2. Zerrenda egin ostean taula bat egin dezakete. Zutabeak egingo dituzte eta bakoitzak zutabe bakoitzean pertsona ezberdinak jarri ditzake, hala nola ama, aita, amona, aitona, zaintzailea... Edota bere izena ere.
3. Lan bakoitza nork egiten duen jarriko dute X bat eginez adibidez eta lan banaketa horretan nork egiten duen lan gehien ikusiko da.
4. Egoera ezberdinak ikusita banaketa hori era orekatuagoan egin daitekeen berriro pentsatuko dute...

ZAINTZAK PLAZARA !!!

2 eta 3. saioa

(DBH eta Batxilergoa)

1. Ikasleei «zaintzak» hitza entzunda zer ekintza bururatzen zaizkien paperetan idazteko eskatuko diegu. Etxeko zaintzak bakarrik agertuko balira, etxetik kanpo egiten direnak ere aipatzeko ahalegina egin dezatela eskatuko diegu (15').
2. Ondoren taldeka jarri eta taldekideek lan hori egiteko eman beharreko pausoak zehaztuko dituzte, ondoren beraien ikaskideen aurrean zaintza lan horiek antzezteko asmoarekin (15').
3. Zaintza lan horiek antzezten dituztenean gainerako ikaskideek prozedura iruzkinduko dute ondo eta ez horren ondo dauden gauzak nabarmenduta eta zalantzaren bat balute hori oharretan jarrita (30').
4. Ikasleei beraien egunerokoan zaintza lan horiek zeinek egiten dituen adierazteko eskatuko diegu eta horien maiztasuna. Bestalde, zaintza lan horiek gauzatzen diren bitartean beraiek zer egiten duten galdetuko diegu (20').

ZAINTZA LANA	MAIZTASUNA	DENBORA	GUZTIRA ASTEAN	NORK?

5. Lan horiek gabe bizi ahal izango liratekeen galdetuko diegu. Baita, lan horiek egiten dituen pertsonak hilabete batez egingo ez balitu, zer gertatuko litzatekeen irudikatzeko eskatuko diegu (10').

6. Aurreko saioko iruzkinak aztertuko ditugu eta 3 egoera posible eman daitezke (25'):

   a) Ikasleen gehiengoa zaintza lanak egiten ez jakitea.

   - Zergatik ez dakiten galdetuko diegu eta youtubeko tutorialak bilatu beharko dituzte nola egiten diren ikasteko.

   b) Ikasleen erdiak hori egiten badaki, batzuk besteei irakasteko konpromisoa hartuko dute eta zaintzak egiten irakatsiko dionari zer zerbitzu eskaini ahal dion hausnartu beharko dute zaintza lanak egiten ez dakitenek (hamaiketakoa ekarri hurrengo egunean, etxerako lanak egiten lagundu...).

   c) Ikasleen gehiengoak zaintzak egiten badaki:

   - Jakin badakite, zergatik ez duten maizago egiten galdetuko diegu eta eskolan bertan gauzatu daitezkeen zaintza lanak aukeratuko dituzte eta horiek burutu. Prozesua kameraz grabatuko dute, benetan egin dutela frogatzeko.

7. Honezkero ikasle guztiek gutxieneko trebezia izan beharko lukete ataza batzuetan. Beraz, etxeko lan gisa horiek egiteko eskatuko diegu eta horiek egiten zituzten bitartean ataza horien arduradunak izandako jarrerari erreparatuko diote (5').

2 GUREAN LANAK BANATUKO DITUGU

Materialak: kartulinak, boligrafoak, margoak, gelakoen argazkiak, paperak, kamerak.
Denbora: 2 saio.
Taldekatze mota: banaka, talde txikiak eta talde handia.

1. saioa: Gelako lanak identifikatu

(HH eta LH)

Garapena:

Talde txikitan bilduko dira ikasleak, bertan gelan bete behar dituzten funtzio guztiak zerrendatuko dituzte, adibidez: landareak ureztatzea, gela txukuntzea, atontzea, gelako birziklapena egitea, gaixorik badago norbaiti etxeko lanak etxera eramatea...

Talde handian lan guztiak zerrendatu eta taldekatuko dituzte.

2. saioa: Lanen banaketa egin

(HH eta LH)

Garapena:

Lantaldeak sortuko dira eta ondoren kartulina batean lan taldeak eta funtzioak jarriko dira eta horiek denboran banatuko dituzte. Astero edo hilabetero adibidez lan horiek txandakatzen joateko

Taldekatzeko taula horretarako taldeko argazkia atera dezakete eta belkroaren bitartez aldatzen joan adibidez.

1. eta 2. saioa

(DBH eta Batxilergoa)

1. Zaintza lanak egiterakoan izandako bizipenak partekatu.
   a) Zer egin zuen ohiko arduradunak zuek lanak egiten zenituzten bitartean?
   b) Zaintza lanak inoiz bukatzen al dira? (15')

2. Miren Amurizak honako artikuluan zaintza katea eta elikagaien-katea alderatzen ditu eta horien artean dagoen desberdintasun nagusia azpimarratzen du. Taldeka beheko taulak betetzea proposatzen dizuegu eta zuen eguneroko zaintza lanak eredutzat baliatuta eta horiek gelaren aurreko aldean itsastea edo proiektatzea eta arin azaltzea. Taldeen artean kateren bat errepikatuko balitz, ez genuke jarriko (30').

ZAINTZA-KATEA

Gipuzkoako Elikagaien Bankuko kide baten deialdia entzun nuen irratitik lehengoan: denera iritsi ezinik dabiltzala eta boluntarioak behar dituztela, gazteak bereziki. Uda sasoian baja asko edukitzen dituztela azaldu zuen; boluntario gehienak aitona-amonak direnez, bilobak zaindu beharra izaten dutelako edo oporretara joaten direlako. Bistan denez, zaintza lan batzuk (borondatezko lanak halakotzat ulertuta) ez dira bateragarriak beste batzuekin; kasu honetan nork bere burua mimatu eta bilobak jagotearekin (aldi berean, gurasoen lan-egutegiak ere ez baitira umeenarekin bateragarriak).

Elikagai-katearen antzera funtzionatzen du zaintzarenak: igela harraparia da eulientzat, harrapakina sugearentzat; geu ere zaintzaileak izaten gara kide batzuekiko, zainduak besteekiko. Baina kate-begi bat falta denean, desorekak sortzen dira: igelak desagertuko balira, euliak larregi ugalduko lirateke eta sugeek zer jana faltako lukete. Gisako zerbait gertatzen da maiz zaintzarekin, norbaitek bere funtzioa betetzeari uzten dionean (boluntarioak adibide) huts egiten duela sistemak. Bada, ordea, diferentzia bat: guk, gainontzeko animaliek ez bezala, betebeharrak banatzeko aukera dugula. Beraz koadrilan afariak antolatzen dituena beti pertsona bera bada, edo bikotean plantxoak proposatzen dituena, edo bileretara pastak daramatzana... luzera, apenas izango den ekosistema hori jasangarria.

ITURRIA: https://www.berria.eus/paperekoa/1777/023/002/2017-06-24/zaintza_katea.htm

ZAINTZAK PLAZARA !!!

ELIKAGAI-KATEA	ZAINTZA-KATEA	KATEBEGIAREN GALERAK DAKARREN ONDORIOA
fruta		
eulia		
igela		
sugea		
arranoa		

3. Egindako kateen inguruko eztabaida izango dugu. Honako galderak hausnarketarako lagungarriak gerta dakizkizuke (30').

   a) Mirenen, esanetan zertan desberdintzen dira elikagaien-katea eta zaintza katea?

   b) Generoari erreparatzen badiogu, zeinek egiten ditu zaintza-kateko lan gehienak? Nortzuk jasotzen ditugu horren onurak?

   c) Zure ekosisteman hausnartuta, zeintzuk dira katebegirik zamatuenak?

   d) Zer gertatzen da etxekoek zaintza lanak egin ezin dituztenean?

   e) Aurreko galdera kontuan hartuta, katebegirik falta al zaio zure taulari?

   f) Etxean bukatzen al da zaintza katea? Zer harreman du horrek karteleko irudiarekin? Gezien zentzuek zer adierazten dute?

4. Kalera atera eta zaintzen aurpegia bilatu. Zaintza jarduera gauzatzen ari diren jatorri ezberdineko 2 pertsona identifikatuko dituzte taldeka, argazkia ateratzeko baimena eskatuko diete eta labur bere istorioa, eta zaintza lanetan duten esperientzia kontatzeko eskatuko diete. Oharrak hartuko dituzte eta elkarrizketatuek onartuz gero, erakusketa batean jarriko ditugu institutuan bere argazkia eta istorioa (45').

3 ZAINTZEN AZTERKETA GURE GIZARTEAN

Materialak: guraizeak, kartulinak, aldizkariak, kola, margoak, propaganda...
Denbora: 2 edo 3 saio.
Taldekatze mota: banaka, talde txikiak eta talde handia.

Garapena:

1. saioa

(LH 1 eta 2. mailak)

- Eskolara, etxera iristen zaizkien aldizkari eta propagandak eramango dituzte.
- Bakoitzak bertan agertzen diren zaintza lanetan agertzen diren pertsonak moztuko ditu.
- Taldeka moztutako irudiak bi kartulina ezberdinetan itsatsiko dituzte. Batetik emakumeek egiten dituzten lanak eta bestetik gizonek egiten dituztenak.

2. saioa

(LH 1. eta 2. mailak)

- Konparaketa egingo dute eta ondorioak aterako dituzte karteletako irudiak ikusiz, ea errealitatea deskribatzen duten, ea lanak orekatuta agertzen diren...
- Hirugarren kartulina batean gizonak eta emakumeak zaintza ezberdinetan eta irudiek agertzen ez dituzten aukeran marraztu eta osatuko dute.
- Ondoren eskolako pasilloetan jarriko dituzte erakusketa moduan, errealitatea eta izan beharko zena plazaratzeko.

1. saioa

(LH 3. eta 4. mailak)

- Etxean galdetu beharko diete bertan bizi diren gizon eta emakume helduei:
  - Zer egiten duzu zuk orain etxean bizi ziren gizon/emakumeek ez zutena inolaz ere egiten?
  - Zer ez duzu egiten etxean bizi ziren gizon/emakumeek egiten zutena?
- Aldaketaren jabe egiteko egingo dugu. Gauzak orain diren modukoak izan ez direla jabetu daitezen.
- Baina tamalez, aukera berdintasunetik oso urrun gaude oraindik...
- Honela banatzen dira gaur egun soldatapeko lanak eta soldatarik gabekoak generoaren arabera:



- Zer uste duzu zuk egingo duzula ezberdin zure etxeko gizon eta emakumeekin alderatuta? 2040.urtean kokatuko gara.
- Zer egingo dut etxean? Kalean? Lanean?
- Zer ez dut egingo etxean? Kalean? Lanean?

1. saioa:
Etxeko soldata kalkulatu

(LH 5. eta 6. mailak)

Zenbat ordaindu beharko genieke etxeko helduei etxeko lanetaz arduratzeagatik? Kalkulatu dezagun! Egiten duten lanen ehunekoaren arabera egingo dugu kalkulua.

Adibidez erosketen ardura banatuta badago %30ean Aitak eta Amak %70ean. Aitaren nominan 30 € agertuko da eta amarenean 70 €.

Horrela etxeko lanen zerrenda egingo dugu eta pertsona bakoitzak irabaziko lukeena adierazi.

http://hacialahuelgafeminista.org/materiales-eje-cuidados-2018/





LAN ORDAINDUA
LAN EZ ORDAINDUA

steilas

2. saioa:
Bikote heterosexual batek umea izaterakoan zer?

(LH 5. eta 6. mailak)

Bikote batek haur bat izaten duenean bizitza nola aldatzen zaion aztertuko dugu.

- Nola uste duzue aldatzen dela mutil horren bizitza?
- Nola uste duzue aldatzen dela neska horren bizitza?

Iritziak jasotzeko *brainstorming* edo ideia zaparrada egingo dugu.

Ondoren datuak grafiko baten bidez alderatuko ditugu Danimarkako azterketa honen emaitzekin.

AMA IZATEAREN KOSTUA: Umea eduki edo ez edukitzeak eragindako diru-sarreren aldaketa (%). 1980 eta 2013 artean Danimarkako familien artean egindako analisia.



- Hau espero al zenuen?

Grafikoa aztertu eta hausnarketa egingo dugu ahoz gora talde handian.

- Zer gertatu behar da egoera hau aldatzeko?

Grafikoa kartulina baten erdian itsatsiko dugu. Titulu gisa galdera modu argian jarriko dugu. Erantzunak koloretako errotuladorekin idatz ditzatela. Lan hau eskolako leku esanguratsuan jarriko dugu.

0-3 ADIN TARTEKO HEZITZAILEEN HAUSNARKETA

Adin tarte honetan batez ere helduen esku-hartzeak dauka garrantzia haurren adina kontuan hartuta, ondorioz hezitzaileek hausnarketa bat egin dezakete ondoko gaietan arreta jarriz:

- Haurrak jolas librean daudenean ze nolako jostailuak hartzen dituzte jolasteko eta zer nolako mezuak jasotzen dute helduen aldetik?
- Nolako ereduak ematen dizkiegu haurrei gelan ditugun irudi eta ipuinetan?
- Zer nolako materiala eskaintzen diegu haurrei jolastu dezaten?
- Gurasoekin hitz egiten dugunean nola hitz egiten dugu zaintzen inguruan?
- Haurra gaixorik jartzen denean nori deitzen diogu lehendabizi? Zergatik?
- Haurren zaintzekin zerikusia duenean nola hitz egiten diogu amari? Eta aitari?

Ondoren atera dituzten ondorioak hezitzaileen artean eta gurasoekin partekatuko dira eta beraien eguneroko jarreretan egin beharreko aldaketak zerrendatuko dituzte.

0-3 ADIN TARTEKO FAMILIEKIN LANKETA

Materialak: kamera, papera eta boligrafoak.
Denbora: 4 saio.
Taldekatze mota: bikoteka eta talde handian.

Adin tarte honetan haurrek bere inguruko helduek egiten dutena xurgatu egiten dute eta gero imitatu, denboraren eta errepikapenaren poderioz, berezkoa eginez. Inongo filtrorik gabe jasotzen dituzte zaintzak, helduen eskuen bitartez, begiraden bitartez, hitzen bitartez beraien gorputzean eta garunean.

Zaintzak eguneko erritualen parte izanda eta gure autoirudia eta autoestimurako ezinbestekoak izanda, ariketa interesgarria proposatu egiten dugu. Familiekin zaintza tailerra egitea alegia.

Eskoletan Emmi Piklerren metodoa praxira eramaten da eta hauek koreografia espezifikoa dute. Eskoletako profesionalek horiek menperatzen dituztenez ondorengo ariketak proposatuko genizkieke:

1. saioa:
Gaiaren aurkezpena

1. Eskolan egiten diren zaintza momentuak grabatu eta familiekin partekatu.
2. Tertulian koreografiaren arrazoiaren azalpen teorikoa eman.
3. Bikoteka eztabaidatu eta beraiek landuko duten zaintza momentu bat aukeratu:
    - «Zergatik aukeratu duzue zaintza momentua zehatz hori?».
    - «Nor da zaintza ezberdinetaz arduratzen den gurasoa? Zergatik? Garrantzitsua da zuentzako momentu hau?».
4. **Etxeko lana:** Kronometratu zaintza momentu bat.

2. saioa:
Zaintzen kontzientzia hartu

1. Etxeko lanen inguruko hausnarketa kolektiboa.
2. Taldeka: momentu hau umearentzat garrantzitsua dela uste duzu? Zergatik?
3. **ETXEKO LANA:** Grabatu zaintza momentu bat.

3. saioa:
Zaintzen garrantzia sakondu

1. Grabaketa ikusi eta gero amankomunean jarri ikusitakoa.
2. Zure seme-alabak nola bizitzen ditu zaintza momentuak?
3. Nola sentitzen zara? Noiz urduritzen zara gehien? Noiz disfrutatzen duzu gehien?

4. saioa:
Ondorioak

1. Tailer zikloa bukatzeko borobilean tertulia egingo da.
2. «Hasi ginenetik hona zer aldatu da zuen egunerokotasunean?».
3. Alde positiboak eta negatiboak.

Ebaluaketa

Kartelarekin egingo den lehenengo jarduera ikasleek zaintzaz dituzten ezagutza edota sentsibilitatea ebaluatzeko erabiliko da. Horrek erraztuko du zehazten zeintzuk diren bereziki landu behar diren alderdiak.

Unitatea lantzen den bitartean, ikasleen parte hartzea eztabaidetan informazioaren bilaketan eta materialen elaborazioa behaketa sistematiko baten bitartez ebaluatuko da.

Unitatea bukatzean, berriz, ikasleen banakako eta taldeko lana baloratuko da ezarritako irizpideen arabera.

Bestalde, jarduera bakoitzaren bukaeran jardueraren beraren ebaluazioa egingo da, zerk funtzionatu duen, zerk ez, nola antolatu den gela, denbora, ikasleen motibazioa, taldekatzea... Hau guztia unitatearen prozesua eta garapena egokitzeko erabiliko da.

EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

- Ea zaintza lanak identifikatzen dituen.
- Ea bakoitzaren ardurak identifikatzen dituen.
- Ea proposamenak dituen lanen banaketa denen artekoa den.
- Ea egunerokoan egin beharreko lanak identifikatzen dituen.
- Ea jarrera positiboa agertzen duen lanak egiterako garaian.
- Ea hausnarketarako jarrera deun.

EBALUATZEKO TEKNIKAK

- Behaketa.

EBALUATZEKO TRESNAK

- Irakasleak eguneroko jarraipena.
- Egindako lanak.

IKASLEEN EBALUAZIOA

- Zer den gehien eta gutxien gustatu zaiena.
- Zer den ikasi dutena edota zertaz jabetu diren.
- Zerk harritu dituen gehien.
- Zer aldatuko luketen prozesuan.

Baliabideak

WEBGUNE INTERESGARRIAK

- http://www.aulaplaneta.com/2015/10/20/recursos-tic/diez-recursos-para-trabajar-la-igualdad-de-genero-en-el-aula/
- https://vimeo.com/187220975 yo cuido, ella cuida, él cuida

Zaintzen pedagogia

InteRed

ABESTIA: «Lunes antes de almorzar una niña...»

https://youtu.be/u7YBb9Pzkho

IPUINA

EL PRÍNCIPE CENICIENTO

MARISA REBOLLEDO DESCHAMPS

{Ipuina egokia ikusten badugu itzuli dezakegu}

Os voy a contar la historia del Príncipe Ceniciento que había heredado ese nombre de su tatarabuela a la que todos llamaban Cenicienta.

Ceniciento era gran amante de los animales, digamos que de mayor no quería dedicarse a las tareas reales, sino que quería ser veterinario. Pero sobre todo, Ceniciento adoraba a su Caballo Lucero y era inmensamente feliz cuidándolo, jugando con él y saliendo a cabalgar juntos por el bosque. Disfrutaba mucho dándole de comer, bañándolo, peinándolo…

Sucedió que su padre el Rey y su madre la Reina debían hacer un largo viaje por otros reinos para solucionar importantes problemas. Cuando se lo comunicaron Ceniciento se puso muy triste, pero luego se alegró al saber quién se quedaría a su cuidado, ¡EL VETERINARIO REAL! ¡HURRA! Podría aprender con él su profesión y cuidar de los animales que era lo que más le gustaba hacer. La verdad es que con esa noticia el disgusto se le pasó un poco.

El veterinario real vivía con su esposa y sus dos hijos. En su reino eran las mamás las encargadas de las tareas de la casa y del cuidado de sus hijos e hijas. Los hijos del veterinario real, cuando no iban a la escuela, iban con su papá a ayudarle en sus tareas de cuidado de los animales. Ceniciento solía ir con ellos y era muy feliz en contacto con los animales. La primera semana curaron a un loro afónico, una gatita que se había resfriado y a varias yeguas y caballos que habían comido demasiada hierba en el prado.

Ceniciento pasaba mucho tiempo con su amigo más especial, su caballo Lucero. Salía a pasear con él y el veterinario real le enseñó algunos trucos para cuidarle mejor.

Pero sucedió que la esposa del veterinario real enfermó y la tuvieron que llevar al hospital. El veterinario reunió a sus hijos y a Ceniciento, les comunicó la noticia y también les dijo que debían decidir quién cuidaría de la casa durante la ausencia de la mamá. Decidieron sortear la tarea y… ¡LE TOCÓ A NUESTRO AMIGO CENICIENTO!

Ceniciento desde ese día tuvo que hacer todas las tareas de la casa: cocinar, lavar, planchar, fregar, limpiar, hacer la compra, hacer las camitas, etc, etc, etc…

Cuando regresaba de la escuela se pasaba toda la tarde trabajando en casa sin descanso, mientras los demás se marchaban a curar y a cuidar de los animalitos o a jugar, sin colaborar

en nada. Y encima ensuciaban y desordenaban todo.

Ceniciento se quedaba trabajando sin parar. Por la noche, después de cenar, todos veían la tele o podían jugar un rato, mientras él tenía que recoger los platos y limpiar lo que se había ensuciado durante la cena, además de preparar la comida para el día siguiente. También era el primero en levantarse para preparar el desayuno de los y las demás.

Pero a Ceniciento no le importaba tanto tener que trabajar sin descanso, escuela-casa, casa-escuela, como no poder ir a pasear con su caballo Lucero, no poder siquiera visitar su cuadra, peinarlo o darle de comer. Estaba muy triste por no poder, tan siquiera, ver a su amigo.

Ocurrió que como Ceniciento no iba a visitar a Lucero, éste enfermó de tristeza porque echaba de menos a su compañero de trote y de juegos. Lucero dejó de alimentarse. Sumido en la tristeza dejó de comer y poco a poco fue perdiendo sus fuerzas y enfermó gravemente.

Ninguna medicina ni poción mágica sirvió para reanimar a Lucero. Cuando Ceniciento se enteró de que Lucero estaba enfermo pidió permiso para ir a visitarlo. El veterinario real le aconsejó que si quería ayudar a su amigo debía cocinar unas hierbas curativas para hacer una poción.

Lucero no experimentaba mejoría a pesar de las pociones que le daba el veterinario real y Ceniciento, más triste aún, se quedaba en casa hirviendo hierbas mientras los demás salían al bosque a curar animales. Ceniciento comenzó a pensar que quizás Lucero no tenía ninguna enfermedad que él no pudiese curar con su compañía.

Una tarde mientras barría el porche, vino a visitarle la Gran Maga Luna que vivía en la Montaña Mágica. La Gran Maga Luna le confesó a Ceniciento la verdadera causa de la enfermedad de su caballo: Lucero había enfermado de la tristeza que le causaba la ausencia de su gran amigo. Ceniciento contó a la Maga su idea de escaparse, llevándose con él a Lucero, pero ésta le explicó que si, esa misma noche, Lucero no ingería algo de alimento su vida correría grave peligro.

Ceniciento y la Maga decidieron entonces salir rápidamente en busca del caballo. Al llegar a los establos encontraron a Lucero tumbado y sin fuerzas, pero al oír la voz de Ceniciento abrió los ojos y se le iluminó la mirada.

Ceniciento y la Maga salieron a buscar bayas, las favoritas de Lucero, que sólo su amigo conocía. Ya en el establo prepararon un mejunje y Lucero lo devoró con ansiedad, bebió agua y pasadas unas horas, había recuperado parte de sus fuerzas. Esa misma tarde, Ceniciento lo llamaba desde fuera del establo y salía elevando sus patas delanteras, trotando tras su amigo. Corretearon por el bosque y fueron en busca de ricos pastos para que el caballo se alimentara y recobrara totalmente las fuerzas.

Mientras tanto el veterinario real y sus hijos se prepararon para cenar

y vieron que Ceniciento no estaba. Pensaron que algo malo le había sucedido y tras esperarle toda la noche, salieron a buscarle al amanecer.

Lo encontraron correteando alegremente por el bosque, seguido de Lucero. Cuando los vieron no cabían en sí de gozo al comprobar que nada malo le había ocurrido y también por ver al bueno de Lucero, a quien todos querían, correteando tras su amigo.

Ceniciento les contó lo sucedido y explicó la causa de la enfermedad de Lucero y también, lo dura y sacrificada que era la doble jornada de trabajo que llevaba en los últimos tiempos. Entre la escuela y las tareas de la casa no le quedaba ningún tiempo para compartir con su caballo y para aprender las tareas de veterinario que era lo que más le gustaba. Toda la familia le comprendieron y a partir de entonces decidieron compartir las tareas de la casa para que así todos y todas tuviesen tiempo libre para aprender otras cosas y divertirse o descansar.

Cuando regresó la esposa del veterinario real, también se alegró de ese nuevo reparto de tareas, pues a partir de ese momento ella ya no tendría que regresar del trabajo y hacer todo, sin tiempo para nada, sino que compartirían entre toda la familia las tareas, y ella estaría más descansada y tendría tiempo libre para otras actividades o para descansar.

Fin

ZAINTZAK PLAZARA!!!

steilas

www.steilas.eus

BIZITZA ERDIGUNEAN